



# Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

*bizi ezazu*

# MED

Musika Eskola Digitala

25 urte  
agoz

Zenb./Nº 8  
Urtea/Año 2012  
Maiatza/Mayo

## IKASLEAREN DEKALOGOA

*Guztiok "astirik ez"aren garaian bizi gara. Presaka bizitzea ez da batere ona. Baina egia da noizbait, antolamendu apur batekin, lanak lehenago egiten direla eta hain interesgarri egiten zaizkigun eta hain atsegin ditugun beste jaerdueratarako denbora ere lor dezakegula. Bestalde, geure irakasle-lana da ere zuentzat baliabideak eta arrastoak uztea, zeuen kabuz etxean egunero ikasi eta, baita ere, seguruenez alde zuretik eskolan ikusitako eta gainditu beharreko trabeak aurre egiteko aukera izan dezazuen. Eskolan ikusi ezin izan ditugun, hain gustokoak dituzuen eta zuen gozamenerako aukeratu dituzuen partitura horiek (musika-literatura anitza dago, estilo, herri eta musikaren historiaren garai askotakoak) jotzeko gai izan zaitezten ere nahi dugu. Horrexegatik, badira urte batzuk, ikaslearen dekalogoia eman genuen argitara. Zuen ikasteko autonomia hobetzeko aholku-sorta da. Funtzionatzen dute. Proba itzazu. Hobeto antolatzen eta emaitzak hobetzen lagunduko dizute. Esaiguzu zer moduz erabili eta gero... Dena dela, apurka-apurka komentatuko ditugu datozen zenbakietan.*

## TUTORETZEN GARRANTZIA MUSIKA ESKOLAN

Zuetako gehienok, irakasgai bat baino gehiagotan zaudete matrikulatuta gurekin: askok musika-tresna edo kantua ikasten duzue espezialitate gisa eta, gainera, musika-lengoaia edo tresna-talderen bat. Seguru ia guztiok rakasle bat baino gehiago duzuela Musika Eskolan.

Zuen musika-prestakuntza gurekin koherentea izan dadila nahi dugu: irakasgai batetan ikasitakoa baliozkoa izan eta beste batetan ikasitakoarekin erlazionatuta egon dadila, musikaren ezaguerera modu oso eta globalizatuagoan hurbil zaitezten.

Aurkezten dizkizuegun hezkuntz edukieren egokitzapen eta bateragarritasun hobereana lortzeko, irakasleok talde-lana egiten dugu. Dakizuenez, zuetako bakoltzak erreferentzia-irakasle espeziala dauka, zuen tutorea; bere lana, batez ere, gurekin ikasteko baldintza hobereenetan egon zaitezten lortzea da: ikasitakoaren segimenduaz arduratzen da gainerako irakasleekin koordinatuz, zuen ikasketak bideratzen ditu... Aholkularirik hobereana duzue, ez izan zalantza izpirik, zuen musika-lana bide egokirik eramateko. Zuetako batzuk bereaiekin hitz egin duzue dagoeneko, datorren ikastuteari begira zertan komeni zaizuen matrikulatzea jakiteko...

Tutoreek asteroko ordutegia dute zuekin hitz egiteko. Ez baduzue oraindik hitzordurik adostu bereaiekin, egizue. Guztiontzat da garrantzitsua. Elkar ezagutzen eta geure lana eraginkorrago izaten asko laguntzen du. Gutxi falta da ikasturtea amaitzeko. Ez zaitezte azken ordura arte zain egon.

## Hileko egutegia

Maiatza

a	a	a	o	o		i
	1	2	3	4	5	6
7	8	9	10	11	12	13
14	15	16	17	18	19	20
21	22	23	24	25	26	27
28	29	30	31			

Días festivos
Actividades de la Escuela
Actividades en festivo

## AGENDA

Mayo

- Maiatzak 3:** Itxiera-Kontzertu Didaktikoa, tresna guztiak. 17:45ean Zentroko Entzunaretoan. Sarrera doan.
- Maiatzak 4:** Biolontxelo ikasleen entzunaldia. 19:00etan Zentroko Entzunaretoan. Sarrera doan.
- Maiatzak 7:** Kontrabaxu ikasleen entzunaldia. 19:45ean Zentroko Entzunaretoan. Sarrera doan.
- Maiatzak 10:** Piano ikasleen entzunaldia. 19:15ean Zentroko Entzunaretoan. Sarrera doan.
- Maiatzak 10:** Akordeoi ikasleen entzunaldia. 20:00etan Zentroko Entzunaretoan. Sarrera doan.
- Maiatzak 17:** Haize-metalezko tresnen ikasleen entzunaldia Zentroko Entzunaretoan. Sarrera doan.
- Maiatzak 18:** Toru Kannari irakaslearen gitarra ikasleen entzunaldia. 18:30ean Zentroko Entzunaretoan. Sarrera doan.
- Maiatzak 22:** Saxo, klarinete eta flauta ikasleen entzunaldia. 19:45ean Zentroko Entzunaretoan. Sarrera doan.
- Maiatzak 24:** Biolin eta biola ikasleen entzunaldia. 18:30ean Zentroko Entzunaretoan. Sarrera doan.
- Maiatzak 28:** Yolanda Partearroyo irakaslearen piano ikasleen entzunaldia. 19:15ean Zentroko Entzunaretoan. Sarrera doan.
- Maiatzak 29:** Perkusio ikasleen entzunaldia. 20:00etan Zentroko Entzunaretoan. Sarrera doan.
- Maiatzak 31:** Natalia Cordero eta Pía Rojas irakaslearen piano ikasleen entzunaldia. 18:00etan Zentroko Entzunaretoan. Sarrera doan.